

Baionan, 1998ko maiatzaren 29an Ageriko batzarra

Baionan, udal bibliotekan, 1998ko maiatzaren 29an, arratsaldeko 4etan, hasi da Euskaltzaindiak, Baionako ordezkari-tza berriaren inaugurazioa dela eta, antolatut duen batzar irekia. Bilduak honako jaun-andre hauek izan dira:

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin eta I. Sarasola, euskaltzain osoak eta P. Andiazabal, X. Arbelbide, R. Badiola, J. Camino, J. B. Dirassar, J. B. Etxarren, L. Etxezaharreta, M. Itzaina, B. Goiti, D. Landart, J. L. Lizundia, M. Pagola eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, eta M. J. Minaberri, euskaltzain ohorezko berria. Hauezaz gainera, Michel Intxauspe, diputatu eta kontseilari orokorra eta kazetari eta entzule andana bat.

1. Goizeko bilkuraren berri.

Lehendabizi, idazkariak goizeko bilkuraren berri eman du. Ondoren, euskaltzainburuak ekitaldira etortzerik izan ez dutenen zerrenda irakurri du.

2. Garcia Larratxe familiari eskerrak emanaz.

Gero, J. Haritschelhar jaunak eskerrak eman dizkie Garcia Larratxe familiakoei datozen bi urteetarako Thiers kaleko etxea Euskaltzaindiari uzteagatik. Euskaraz eta frantsesez hitz egin du euskaltzainburuak. Esker-hitz hauen ondoren, Euskaltzaindiaren domina eta zenbait liburu oparitu dizkio.

3. Tomas Uthurri euskaltzain urgazlearen hilberri txostena.

Ondoren, Pierre Andiazabal euskaltzain urgazleari eman zaio hitza Thomas Uthurry euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurtzeko. Apaiz eta irakasle zuberotar honen bizitza eta lanak gogoratu ditu hizlariak: Zuberoako gazteriaz arduratua, kontzilio aurretik liturgia testuen itzultzaile, langile porrokatua.

4. M. J. Minaberri, ohorezko euskaltzain berri.

Joan den hileko batzarrean ohorezko izendatu zirenen artean zegoen Minaberri andrea ere. Euskaltzainburuak izendapenari dagokion diploma eman dio eta ohorezko berriak hitz labur batzuekin eskerrak itzuli nahi izan dizkio: “zerbaitek barnetik unkitzen naularik” -esan du- “mututurik gelditzen naiz. Orain ere, hala, mutu. Eskerrik asko”.

4. P. Larzabalen Oroitzapenak liburuki berriaren aurkezpena.

Azkenik, Charritton jaunak prestatu berri duen Larzabalen obraren VII. liburukiaren aurkezpena egin da. Lehenbizi, J. L. Davantek hartu du hitza. Frantsesez lehenengo, euskaraz gero. Frantziako hizkuntza gutxituei buruz prestatu berri den txostena salatu du hizlariak. Txosten horren prestatzaile den Poignant jaunaren adierazpenak hartu ditu ahotan. Euskara bezalako hizkuntzak “pribatu” izatera kondenatzea eskandalagarria da. Hizkuntza pribatuak eskubideez pribatua esan nahi du.

Gero, aurkezten den liburuaren edukiaz mintzatu da.

Azkenik, P. Charrittonek hartu du hitza. Liburukia azkena izateko asmoz jaio zen, baina agian ez omen da azkena izango. Berrikitan atxeman dituzte beste zenbait lan, antzerki eta artikulua.

Arratsaldeko bostetan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga